

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

EX-man taldea: Ondasunak gordetzeko takila zerbitzua.

Gu, EX-man taldeko partaideak gara, zehatz mehatz Mireia, Nahia, Adur, Xuban eta Eider. Gure proiektuaren eginkizun nabarmena, adin tarte zabal bati eskainia dagoena, takila zerbitzu batean oinarritzen da. Bertan, aurrez aipatu bezala edozein adin tarteko hiritarrek haien ondasunak leku seguru batean gordetzeko aukera izango dute.

Adinduei edo elbarriei errefentzi eginez, haientzat zerbitzu berezia eskainiko diegu, hau da, haien ezintasunen ondorioz, bertan gordetako ondasunak etxera eramatea ahalbidetzen duena.

Gure zerbitzu-gunea, Tolosan kokatua egongo da eta erabiliko dugun lokala segurtasun faltarik gabea izango da; izan ere, segurtasun kameraz aparte, bizkarzaina egongo da uneoro. Takilen ordainketa, MUGI txartelak duen funtzionamendu bereko beste txartel batekin egingo da. Azkenik, Gizarte Erantzukizun Korporatiba kontuan hartuta, gure enpresaren xedea egungo egoera kontuan harturik, ingurumena da. Horrenbestez, garraio zerbitzua, bizikletaz zein auto elektrikoaz egingo dugu.